

IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA EUOPAR BATASUNAK KOFINANTZATUTAKO PROIEKTUETAN

2017/1371 (EB) Zuzentarauak –Batasunaren finantza interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzkoa– iruzurraren definizioa jasotzen du 3.2. artikuluan. Gastuei dagokienez, iruzurra definitzen da esanez iruzur kasuak izango direla:

i. aitorten edo dokumentu faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabili edo aurkeztea, baldin eta horien ondorioa bada Batasunaren aurrekontuko funtsak edo aktiboak edo Batasunak edo haren izenean administratutako aurrekontuetakoak bidegabe erabili edo atxikitzea,

ii. informazio bat jakinarazteko betebeharrak espresu bat ez betetzea, betiere ondorio bera baldin badakar, edo

iii. funts edo aktibo horiek hasieran emandako helburuez bestelako xedeetarako erabiltzea eta horrek Batasunaren interes finantzarioen kalterako izatea.

Horretaz gainera, aipatutako zuzentarauak adierazten du estatu kideek behar diren neurriak hartuko dituztela, arau-hauste penaltzat har dadin Batasunaren finantza interesei eragiten dien iruzurra, nahita egiten denean. Ildo horretan, zehapen araubide bat zehazten du aipaturiko zuzentarauaren 7. artikuluan.

Nabarmendu behar da irregulartasun bat izateak ez duela beti esan nahi iruzurra gerta daitekeenik; nahitasuna funtsezko elementua da iruzurrean, baina ez da beharrezkoa irregulartasunak agertzeko.

Bestalde, Europako Erkidegoen finantza interesak babesteari buruzko Kontseiluaren 1995eko abenduaren 18ko 2988/95 Erregelamenduak (EE, Euratom) hauxe ezartzen du 1.2 artikuluan: «Irregulartasuna izango da eragile ekonomiko baten ekintza edo ez-egite bati dagokion Erkidegoko zuzenbideko xedapen baten arau-hauste oro, baldin eta arau-hauste horrek kalte egiten badie edo egingo balie erkidegoen aurrekontu orokorrari edo erkidegoek administratutako aurrekontuei, dela Komunitateen kontura zuzenean edo gastu baten bidez jasotako baliabide propioetatik datozen diru-sarrerak murriztuz, dela diru-sarrera horiek ezabatuz».

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundia, Europako funtsen onuraduna den heinean, beharturik dago neurri egokiak eta proportzionatuak hartzera iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko, eta beharturik dago, orobat, legezko ekintzak gauzatzera, bidegabeki jabetutako funtsak berreskuratzeko.

Iruzurraren aurkako neurriak zikloaren lau faseetan hartuko dira: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

Prebentzioa. Prebentzio neurrien helburua da maila onargarrira murriztea iruzurraren hondar arriskua. Neurri horiek honako hauek izango dira:

Kultura etiko bat garatzea, balioak sustatzea eta jokabide kodeak ezartzea oinarri gisa harturik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak badu etika publikoa sendotzeko Zuzentasun Sistema bat, 2016ko martxoaren 1ean onartua. Sistema horren xedea da zuzentasunaren kultura garatzea eta sustatzea arduradun eta enplegatu publiko guztien artean funtzio publikoak betetzean, bai eta foru zerbitzu publikoak hornitzen parte hartzen duten erakunde edo pertsona guztien artean ere. Hala, Zuzentasun Sistemak modu eraginkorrean artikulatzen du azpiegitura etikoa foru erakundeetan. Sistema horren barruan, jokabide kode hauek onartu dira:

- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea.
- ✓ Gipuzkoako Foru Enpleguaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea
- ✓ Kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua

Horietan guztietan, ezartzen da zer prozedura baliatu behar diren interes gatazka bat eragin dezaketen egoerak agertuz gero.

Era berean, erakundeen zuzentasuna zabaltzeko eta prebentziorako sistemak ezartzen dira, eta, orobat, sistema horrekin loturiko berme, jarraipen eta ebaluazio tresna bat ere definitzen da, zeina 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortua baita. Organo independente horren eginkizuna da bermatzea bultzatzen, sustatzen, zaintzen eta betetzen direla jokabide kodeetan arautzen diren balioak, printzipioak eta jokabide arauak.

Prestakuntza eta kontzientziakzioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak nahitaezko prestakuntza plan bat izango du Gipuzkoako foru enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodeari dagokionez, hautaketa prozesu bidez

sartzen diren langileentzat. Era berean, kargu publikoak dituzten pertsonak ere berariazko prestakuntza izango dute.

Horretaz gainera, barne komunikazioko kanalen barruan – langileen intraneta– jasoko da Zuzentasun Sistemaren edukia, bai eta Erakundearen Etika Batzordeari dagokion guztia ere (funtzioak, salaketak egiteko kanala, gauzaturiko ekintzak eta jardunaldiak, ebazpenak...).

Agintarien inplikazioa.

Erakunde gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak berretsi egiten du iruzurraren aurkako konpromiso irmoa, Diputatuen Kontseiluaren adierazpen instituzional baten bidez adierazia. Argi eta garbi jakinaraziko zaie adierazpen hori, hala foru langileei, nola herritar guztiei, eta adieraziko zaie zero tolerantzia ekarriko duela iruzurraren aurrean.

Garbi bereizten dira **kudeaketa, kontrol eta ordainketa jarduketak**. Horrela, funtzionalki eta organikoki independenteak izaten dira proiektuak gauzatzen dituzten organoak, kontu-hartzailetzan jarduten dutenak eta diruzaintzan aritzen direnak.

Arriskua ebaluatzeko mekanismo egokiak

Gipuzkoako Foru Aldundia bitarteko erakundetzat hartzen da EAEko 2014-2020 aldirako EGEF Programa Operatiboan. Horrek esan nahi du ezarrita eta ikuskatuta dauzkala kudeaketa eta kontrol sistema batzuk, eta sistema horiek, aldi berean, helarazi zaizkiela proiektuak kudeatzen dituzten foru departamentuei, dagokien heinean. Bitarteko erakunde gisa esleituta dauzkan eginkizunen artean ageri da, esaterako, arriskua autoebaluatzeko sistema bat aplikatzea eta iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionatuak hartzea. Ezarritako arrisku esparruak hiru prozedura bereizten ditu:

- Programa Operatiboaren helburuak gauzatzean eta lortzean eragin dezaketen arriskuak identifikatzea.
- Hautatutako eragiketen iruzur arriskuaren autoebaluazioa.
- Bandera gorriak iruzurraren aurkako borrokan.

Testuinguru horretan, eta kontuan izanik ezarritako prozedurak Europar Batasuneko organoek emandako gidei eta orientabideei jarraikiz eginak direla –eta aurreikusten denez Europako funts gehiago, proiektu berriak, kudeatzaile berriak eta kudeaketa eta kontrol sistemetako eskakizun berriak izango direla–, beste funts batzuei ere aplikatuko zaizkie EGEFen ezarritako arriskuak ebaluatzeko egungo mekanismoak eta iruzurraren aurkako neurriak,

bai eta etorkizunean ezartzen diren hobekuntzak ere, aplikagarritzat jotzen direnean, betiere bakoitzaren eskakizunetara egokituta eta proportzionaltasun printzipioari jarraikiz.

Detekzioa. Prebentzio neurriek ezin dute erabateko babesa eman iruzurraren aurka, eta, beraz, detekzio sistemak behar dira garaiz atzemateko prebentziotik kanpo geratzen diren iruzurrezko jokabideak. Beraz, iruzurraren aurkako estrategia on batek kontuan izan behar du zenbait kasu egon daitezkeela oraindik ere, eta, horretarako, iruzurra hautemateko neurriak diseinatu eta gauzatu behar direla. Gipuzkoako Foru Aldundian detekzio neurri hauek ezarriko dira:

- «Bandera gorrien» sistema. Gaur egun, 2014-2020 aldirako EGEF Programa Operatiboan erabiltzen dira, bai kontratazio espedienteetan, bai dirulaguntzetan. Horrexegatik aurreikusten da Europako beste funts batzuetan ere baliatzea, aplikagarriak diren neurrian, betiere haien ezaugarri espezifikoetara egokituz edo, kasuak hala eskatzen badu, sinplifikatuz. Kasu guztietan jarraituko zaio proportzionaltasun printzipioari.

- Mekanismo egokiak eta argiak, iruzur susmoak hauteman dituztenek haien berri eman ahal izateko. Kanal hauek gaitu dira salaketak aurkezteko:

Erakundearen Etika Batzordea:

<https://www.gipuzkoa.eus/es/diputacion/sistema-de-integridad/comision-de-etica>

GERTUBIDE:

<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/DMDSarbideZabalduaWEB/elegirDemanda.do?departamento=dff&idioma=E>

SNECA:

<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/ComunicacionSNCA.aspx>

OLAF:

https://ec.europa.eu/anti-fraud/olaf-and-you/report-fraud_es

Zuzenketa. Iruzur posibleren bat hautemanenez gero, edo iruzur horren susmo arrazoiturik izanez gero, berehala etengo da prozedura, ahalik eta lasterren ipiniko dira jakinaren gainean agintari interesdunak eta jarduketak egiten parte hartzen duten erakundeak, eta berrikusi egingo dira prozeduraren eraginpean egon daitezkeen proiektu guztiak. Horri esker, hauxe lortuko dugu:

- Iruzurraren eragina ebaluatzea, eta, kasuak hala eskatzen duenean, Ogasun eta Finantza Departamentuko Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiak eta Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiak zehaztuko dute sistemikoa edo puntuala den.

- Iruzurrak eragindako eta Europar Batasunak finantzaturiko edo finantzatu beharreko proiektuak edo horien zatiak erretiratzea, iruzur bat identifikatu denean.

Jazarpena. Atzemandako iruzurraren izaera kontuan hartuta, ahalik eta lasterren hartuko dira neurri hauek:

- Jakinaren gainean ipintzea Herri Kontuen Euskal Epaitegia eta/edo Eusko Jaurjaritza –eta, kasuak hala eskatzen duenean, dagokion ministerioa eta Europako Batzordea–, kasuaren berri eman diezaioten IGAeri eta OLAFi, egoki iritziz gero.

- Gertatutakoaren berri ematea Araubide Juridikoaren eta Pertsonen Kudeaketako Zuzendaritza Nagusiari, erantzukizunak argitu ditzan eta, hala badagokio, diziplina espedientea abiaraz dezan.

- Gertakariak salatzea Fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean, Araubide Juridikoaren eta Pertsonen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiak egoki irizten dionean, gainerako agintari interesdunekin eta inplikaturiko erakundeekin koordinatuta.

